

Transonuba taldeak Aguraingo bere base logistikoa indartuko du, Araba Garapen Agentziaren laguntzarekin

Huelvako enpresak 7.000 m²-ko lurzati bat erosi du, Arabako industria lurzorua sustatzeko foru sozietatearekin egindako akordioari esker

Gasteiz, 2017ko maiatzaren 24a. Grupo Transonuba SL (GTO) eta Araba Garapen Agentzia (AGA) akordio batera iritsi dira garraio enpresak 7.000 m²-ko lurzati bat erosi dezan Aguraingo industrialdean, eta horri esker bultzada handia emango dio huelvar taldeak Lautadan duen base logistikoari. Pilar García de Salazar diputatu nagusiordeak eta Esteban Sánchez Bernabé konpainiako presidenteak izan dute ardura salerosketa izenpetzeko; “Akordio horrek erakusten du enpresek konfiantza dutela lurraldean, ardatz logistiko eta Europarako lotune den aldetik”, azaldu du Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreka Saileko diputatuak.

GTO enpresa 1985ean sortu zen, eta errepideko garraioan eta kontrolpeko tenperaturaren logistikan dihardu, Estatuan zein nazioartean. Gaur egun, 350 hozkailu ibilgailu baino gehiagoko flota dauka. 2000. urtean, lehenengo base logistikoa inauguratu zuten Nieblan (Huelva), 70.000 m² baino gehiagoko azalera duena, eta izandako hazkundeari esker, 2015. urtean instalazio batzuk erosi zituzten Agurainen, Europara eta Iberiar Penintsularen iparraldera begira sendotze ardatz bihurtzeko helburuarekin. Horrez gain, eta enpresa nazioartekoa ere badenez, merkataritza bulego bat dauka Belgikan, eta nodo logistikoen sarea Marokon, Frantzia eta Holandan. Horrek guztiak nazioartean erreferente bihurtu du GTO, jarduera logistikoen zerbitzu integralaren arloan. Hain zuzen, jarduera horien artean daude produktuen biltegitratzea, sendotzea eta cross-dockinga, eta zama osoen zein zatikatuen distantzia luzeko garraioa. GTOk batez beste 450 laguneko plantilla dauka.

“Aguraingo instalazioak, 21.000 m² ingurukoak, erosi eta eraberritzearekin, GTOk funtsezko hiru helburu lortu nahi ditu, zeinen bidez beteko baitu diseinatu dugun plan estrategikoa. Operazioen ardatza: Agurain erreferentzia puntua da



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.araba.eus

Prensa Oharra Nota de Prensa

Afrika iparraldean-AEB ardatzean, bai esportazio bidaietan bai inportaziokoetan, eta erraztu egiten ditu operazio fluxuak optimizatzeko behar diren logistika eta trafikoko operazioak, bai eta bezeroekiko gertuago egotea bermatu ere. Prestasun handiko basea: gure base berriak erraztu egingo ditu gure operazioak, eta aukera emango digu baliabide materialak zein giza baliabideak optimizatzeko, eta bidaien batez besteko iraupena eta errentagarritasuna ere areagotuko dira. Iberiar Penintsularen iparraldean presentzia areagotzea: gure merkatu kuota gehituz gaur egun dugun bezeroen portfolioarekin, eta helburu argizat hartuta bezero gehiago gureganatzea, horrek ahalbidetuko baitigu gure negozio zifra areagotzea ez ezik, baita operazioetarako gure gaur egungo eredia indartzea ere”, adierazi du Sánchez Bernabek. Enpresak 30 lanpostu inguru sortuko dituela aurreikusi da.